Euskararen erakunde publikoa
Office public de la langue basque

# Certification de langue basque
# Ouverture au grand public de l'examen de niveau B1

# Euskara gaitasun agiriak
# B1 mailako azterketa publikoari zabaltzea

**Contexte et présentation du projet :**

Le Conseil d'administration de l'OPLB du 2 juillet 2008 a acté le principe de la création d'un Dispositif de Certification de Langue Basque visant à vérifier et à valider le niveau de capacité linguistique en langue basque, s'appuyant sur un partenariat entre l'OPLB et les Universités de Bordeaux Montaigne et de Pau et des Pays de l'Adour, dont la convention tripartite a été renouvelée pour deux ans après adoption par le CA de l'OPLB du 20 mars 2014. Ce dispositif de certification est basé sur le Cadre Européen Commun de Référence (CECR) qui prévoit 6 niveaux : A1, A2, B1, B2, C1 et C2.

Le premier niveau mis en place dès 2009 est le niveau C1, de manière à assurer la continuité de la certification précédente délivrée par l'Académie de la langue basque Euskaltzaindia. Le niveau C1 est celui de l'utilisateur expérimenté et autonome d'une langue, précédant celui de la maîtrise excellente.

Deux ans après la mise en place du premier niveau, le CA de l'OPLB du 2 décembre 2011 a décidé de poursuivre le développement de ce dispositif par la mise en place d'un deuxième niveau de certification s'adressant aux personnes en cours d'apprentissage de la langue basque. Il s'agit du niveau B1, qui correspond au niveau seuil pour un visiteur en pays étranger, caractérisé par la capacité à poursuivre une interaction et à obtenir ce que l'on veut dans des situations différentes d'une part, et par la capacité de faire face habilement aux problèmes de la vie quotidienne d'autre part. Ce choix répond à un besoin repéré sur le terrain. En effet, de plus en plus de personnes qui démarrent le processus d'apprentissage, de même que les organismes formateurs ou les prescripteurs de formations professionnelles tels que les collectivités locales, ressentent et expriment le besoin de certifier un niveau inférieur au niveau C1. S'agissant des formations à visée professionnelle, la formation mise en place vise l'atteinte d'un niveau défini de compétence linguistique, et le niveau B1 est le niveau le plus utile aujourd'hui pour valider le niveau acquis par certains personnels en formation à visée professionnelle, par exemple le personnel travaillant avec la petite enfance (ATSEM ou personnels de crèches), qui doivent atteindre le niveau B1. Par ailleurs, les personnes engagées dans l'apprentissage à visée personnelle jusqu'au niveau C1, peuvent par l'obtention du certificat intermédiaire de niveau B1, être dynamisées dans leur démarche d'apprentissage.

La décision du CA de l'OPLB du 2 décembre 2011 prévoyait la mise en place du certificat de niveau B1 avec

**Testuingurua eta proiektuaren aurkezpena :**

EEPren 2008ko uztailaren 2ko Administrazio Kontseiluak, Euskara Gaitasun Egiaztapen Dispositibo baten sorrera bozkatu zuen Euskarazko hizkuntza gaitasunaren egiaztatzeko, EEPk Paue eta Aturrialdeko Unibertsitatea eta Bordeaux Montaigne ko Unibertsitatearen arteko hirualdetako hitzarmenean bermatua, 2 urterako eraberritua izan dena EEPren 2014ko martxoaren 20ko Administrazio Kontseiluan onartu izan ondoan. Egiaztapen dispositiboa Europako erreferentzia Marko Bateratuan (EEMB) oinarritua da eta honek 6 maila aurreikusten ditu : A1, A2, B1, B2, C1 eta C2.

2009an berean sortu zen Euskara Gaitasun Agiria edo EGA, C1 mailakoa da, lehenagoko zertifikazioa eskaintzen zuen Euskaltzaindiari jarraipena hartzeko. EEMBaren C1 maila, hizkuntza baten erabiltzaile gaituarena da, hain zuzen adituen mailaren aitzinekoa.

Lehen maila martxan ezarri ondoren, 2011ko abenduaren 2ko EEPren AK-k dispositibo honen garatzea erabaki zuen, beste maila baten egiaztatze agiria sortuz, euskararen ikas-prozesuan direnei zuzendua. B1 maila da, bisitariak atzerriko herrialde batera joateko behar duen Atalase-mailari dagokio, eta bi ezaugarri nagusi dituena, zenbait egoeratan harremanak izateko eta nahi duena lortzeko gaitasuna alde batetik eta eguneroko bizitzako arazoei aurre egiterakoan, malgutasunez jokatzeko gaitasuna. Hautu hau, terrenoko praktikatik eratorri beharrari erantzuteko egin da. Izan ere, euskara ikasteko bidea abiatzen duten gero eta jende gehiagok, baita formakuntza eragileek ere edo formakuntzara langileak igortzen dituzten erakundeek, tokiko aginteak, adibidez, C1en azpiko egiaztatze maila baten beharra nabaritzen eta adierazten dute. Formakuntza profesionalaren eremuan, beren lanerako ahozko hizkuntza jakin behar duten langileek guziek, hizkuntza hein bat eskuratzea dute helburu eta usuenean B1 maila eskuratu behar dute lehen haurtzaroko eremuan lanean ari direnek (haurtzaindegietako langile, eskoletako haurren laguntzaileak). Bestalde, ikas-prozesuan beren baitatik abiatzen diren norbanakoak, C1 mailaraino heltzeko bidean, arteko maila bat, hau da, B1 maila eskuratu ondoren, ikasprozesuan dinamizatuak izan daitezke gisa honetan.

2011ko abenduaren 2ko erabakiak, B1 mailako agiria plantatzeko, azterketa bera publikoki abiatu aitzin, bi

deux phases préalables au lancement public de l'examen :

- Phase 1 : création du référentiel de niveau B1, s'appuyant sur une analyse par le Comité de préfiguration, avec des travaux alimentés par un enseignant responsable pédagogique, en s'appuyant sur la collaboration des services de l'Institut HABE de formation des adultes de la Communauté Autonome Basque.
- Phase 2 : expérimentation avec un public restreint ou groupe pilote, afin de tester le certificat de niveau B1 avant de le généraliser au grand public.

Depuis lors :

- En 2012, le Comité de préfiguration a mené ses travaux d'analyse des différents examens et référentiels existant pour le niveau B1 de langue basque, en particulier celui de l'institut HABE.
- En 2013, le Comité de préfiguration a créé une première ébauche du certificat de niveau B1.
- En 2013, le Comité scientifique a organisé, en étroite collaboration avec l'institut HABE, une première session expérimentale de l'examen de niveau B1, non ouverte au grand public, avec des candidats volontaires.
- En 2014, le Comité scientifique a organisé deux autres sessions expérimentales, afin de former les correcteurs du Pays Basque de France et harmoniser les critères de correction.

Suite à ces expérimentations, l'examen de niveau B1 peut aujourd'hui être étendu au grand public. Une seule session annuelle sera organisée au printemps en même temps que la première session de l'examen de niveau C1, avec une répartition des frais d'organisation entre l'OPLB et les Universités similaire à celle de l'examen C1 : prise en charge de la rémunération des membres du Comité scientifique par l'OPLB, prise en charge de l'édition des prospectus de présentation par l'Université de Bordeaux Montaigne, matériel d'examen et mise à disposition des salles par l'UPPA.

**Délibération :**

Sur la base de ces éléments, l'Assemblée générale de l'OPLB décide :

- d'ouvrir au grand public l'examen de certification de niveau B1 en 2015, avec l'organisation d'une session annuelle ;
- de prendre en charge les frais liés de rémunération des membres du Comité scientifique, pour un coût additionnel évalué à 5.500 €.

**Adopté à l'unanimité.**

urrats aitzin-ikusten zituen :

- 1. urratsa : B1 maila sakonki aztertu ondoren, Batzorde Eratzaileak irakasle baten (Arduradun Pedagogikoa) lanak elikaturik eta Eusko Jaurlaritzan HABEren (Helduen Alfabetatze eta Euskalduntze Erakundea) partaidetzarekin, azterketaren irizpideak finkatzea.
- 2. urratsa : deialdi mugatu baten edo talde pilotu baten bitartez esperimentatzea B1 mailako agiria, publiko zabalari hedatu aitzin.

Geroztik :

- 2012an, Batzorde Eratzaileak B1 mailan existitzen diren azterketa desberdinak eta azterketa irizpideak aztertu zituen, bereziki HABE erakundearenak.
- 2013an, Batzorde Eratzaileak B1 mailako azterketaren lehen zirriborroa osatu zuen.
- 2013an, Batzorde Zientifikoak, HABErekin elkarlan hertsian antolatu zuen B1 mailako lehen azterketa-saio esperimentala, publiko zabalari ireki gabe, kandidatu boluntarioekin.
- 2014an, Batzorde zientifikoak beste bi azterketa-saio antolatu zituen, Iparraldeko azterketa zuzentzailek formatzeko eta zuzenketa irizpideak bateratzeko.

Esperimentazio horietatik landa, B1 azterketa, publiko zabalari hedatzen ahalko zaio egun. Urtean deialdi bakarraren bidez antolatuko da, C1eko lehenarekin batean, antolaketa gastuak C1ean bezala banatuz EEP eta Unibertsitateen artean : EEPk Batzorde zientifikoko kideen soldatak beregain hartzea, Bordeleko Unibertsitateak esku-orriaren beregain hartzea eta UPPAk azterketa materiala eta salak beregain hartzea.

**Erabakia :**

Aitzinago aipatu elementuetan oinarriturik, EEPren Biltzar nagusiak ondokoa erabakitzen du :

- B1 mailako agiriaren eskuratzeko azterketa 2015ean publiko zabalari irekitzea, urteko deialdi bakarrararekin ;
- Batzorde zientifikoko kideen 5.500€tan aurreikusia den gastu emendioa beregain hartzea.

**Aho batez onartua**

---

**Note : Le Comité Scientifique :** organise et corrige les épreuves. Il est composé d'une dizaine de professeurs des lycées, de l'université et d'enseignants d'AEK. **Le Comité de préfiguration :** définit et met à jour les examens des différents niveaux du CECR. Il est composé d'une demi-douzaine de professeurs des lycées, de l'université et d'enseignants d'AEK. L'ensemble du dispositif est animé par l'OPLB.

**Nota : Batzorde Zientifikoa :** azterketak antolatzen eta zuzentzen ditu. Lizeoetako , Unibertsitateko eta AEK-ko hamar bat irakaslez osatua da. **Batzorde Eratzailea :** EEMBren maila desberdinetako azterketak definitu eta eguneratzen ditu. Lizeoetako, Unibertsitateko eta AEK-ko dozena–erdi irakaslez osatua da. Dispositiboa EEPk animatzen du.